

EUSKERA 1

Irakurri testua ahoskera, intonazio eta erritmo egokiekin.

Mamu bat ohean

Begiak dir-dir egiten hasi zitzaizkion, ondo sartuta ez dagoen bonbilla bat bezala, eta orduan, ohetik jaiki zen maskuria azken aldiz husteko. Logelara itzuli eta han gertatutakoa ikusi zuenean, ahoa bete hortz geratu zen. Ohea desaginda zegoen, ipuina eta burusia lurrean zeuden, eta bere aurrean, aitonak oparitutako izara ikusi zuen: zutik zegoen.

Zutik zegoen, bakarrik, almidoituta balego bezala. Goialdean, euro bateko txanponen tamainako bi zulotxok indar handiz distiratzten zuten, bi eguzkik bezala gauez.

Izarak neskatila ikusi zuenean, hau esan zuen:

–Ixo! Ez esan ezer, mesedez.

Nuriak begiak itxi eta atximur egin zuen masailetan, ametsetan zegoela ziur baitzegoen.

Begiak berriro ireki zituenean, izaki zuri arraro hark gelaren erdi-erdian jarraitzen zuen, geldi.

Nuria logelatik irten eta bainugelara itzuli zen.

Aurpegia garbitu zuen,

amets egiten ari zela sinetsita. Irtetean, ama ikusi zuen korridorean.

–Ondoezik al zaude, alabatxo? –galdetu zuen.

–Ez, baina pixagura neukan berriz ere –esan zuen.

–Noski, asko edan duzu-eta!

Ilea laztandu, eta erantsi zuen:

–Tira, zoaz ohera, bihar ezingo zara jaiki, bestela.

Logelara heldu zenean, lehen bezalaxe zegoen dena: ohea desaginda, liburua lurrean, eta izara zutik, makila bat bezain tente eta bi zulotxo distiratsuekin. Nuria ausartu, eta galdetu zuen:

–Ametsetan nago, ezta?



Izara apur bat mugitu, eta erantzun zion:

–Ez, ez zaude ametsetan. Mamu bat naiz.

Hitz hori entzun zuenean, Nuriak bere aurrean jarri zuen pelutxezko hartza, etsai baten erasotik babesteko ezkutu bat balitz bezala.

–Zer? –galdetu zuen, dilista bat bezain ahots txikiarekin.

–Mamu bat –esan zuen berriz izarak.

Jaume Cela. *Egun batzuk Sir Williamekin* (moldatua)

1. Adierazi zein esaldik laburbiltzen duen ondoen testuaren zentzua.

- ☐ Neskatile batek mamuekin egiten du amets.
- ☐ Nuria egarriak dago, eta askotan egiten du pixa.
- ☐ Nuriaren izarak bizia hartu eta mamu bat dela esaten du.
- ☐ Amari gezurrak esaten dizkion neskatile baten istorioa da.

2. Erantzun. Zer egin zuen Nuriak ametsetan zegoen ala ez jakiteko?

3. Ordenatu kontakizuneko gertaera hauek:

- ☐ Bainugelatik bigarren aldiz irtetea, ama ikusi du korridorean.
- ☐ Logelara itzultzen denean, izaki arraroak mamu bat dela esan dio.
- ☐ Nuriaren begiek dir-dir egiten dute, logura sartu zaiolako.
- ☐ Neskatile bainugelara joan da aurpegia garbitzera, ametsetan dagoelakoan.
- ☐ Logelara heltzean, gauza misterioitsu bat ikusi du.
- ☐ Lo hartu aurretik, Nuria pixa egitera joan.

4. Deskribatu, zure hitzak erabiliz, mamua nolakoa den.

5. Osatu esaldi hauek:

- Amak dio Nuria egarri dela, _____ -eta.
- Izarak mesedez eskatzen dio _____ ez esateko.
- Izara _____ oparia izan da.
- Bainugelara joan eta lo hartu aurretik, Nuria _____ ari zen.

6. Lotu hitz bakoitza bere esanahiarekin.

- | | |
|--------------|---|
| almidoitua • | • Zerbait egiazkoa dela pentsatu. |
| maskuria • | • Almidoiz bustia, zurrun gera dadin. |
| sinetsi • | • Zerbait egiteko adorea izan. |
| ausartu • | • Gernua pilatzen duen organoa, gorputzetik atera aurretik. |

7. Adierazi zenbakien bidez zertarako erabiltzen diren esamolde hauek.

- | | |
|---|---|
| ☐ Bat nator... | ☐ Jarraibideak emateko. |
| ☐ Lehenik eta behin... | ☐ Adostasuna adierazteko. |
| ☐ Nire uste apalean... | ☐ Desadostasuna adierazteko. |
| ☐ Oker zaude... | ☐ Iritzia emateko. |

8. Erantzun. Ez bada irakurgaian azaltzen, asmatu.

- Zein da irakurgaiaren izenburua?
- Zein da liburuaren izenburua?
- Nor da egilea?
- Nola deitzen da mamua?
- Zer herritan bizi da Miren?

9. Bilatu irakurgaian hitz hauek oinarri dituzten hitzak.

- | | |
|-------------|-----------|
| • distira ► | • handi ► |
| • eginda ► | • izan ► |
| • almidoi ► | • lo ► |

10. Imaginatu eta erantzun. Zer nahi ote du mamuak? Nola jarraituko du istorioak?